Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Olatz Arriola-Bengoa Ortega

Bilbo, Bizkaia (1986)



Aurkibidea

Biografia



1986ko azaroaren 13an jaio zen Bilbon, eta Bilboko Santutxu auzoan bizi izan da beti. Gurasoak ere bilbotarrak ditu. “Ikus-entzunezko Komunikazioa” ikasketak egin zituen eta kazetari lanetan dabil egun. Gaztedi Dantzari Taldeko partaide eta eragilea da eta taldeko Ane Garairekin batera egin genion elkarrizketa. Santutxuko errealitatea, hizkera informala, dantza taldea eta maskarada izan genituen aipagai, beste hainbat konturen artean. 2014ko ekainaren 28an Zalgize-Donezteben jokatu zuten maskaradari buruz ere hitz egin genuen, nola ez, hegoaldeko talde batek Zuberoan maskarada jokatzen zuen estreinako aldia izan baitzen hura.

Zintak

BIL-013

- **Proiektua**: Gazte gara gazte
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazkin, Aitor
- **Data**: 2014-11-21
- **Iraupena**: 71 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Errazkin, Aitor

Pasarteak

1. Santutxu, herri txiki bat

- **Erref**: BIL-013/004
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:02:51. **Bukatu**: 00:04:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Bilboko auzoa izanagatik, herri bizitza egin daiteke Santutxun. Zerbitzu mailan aski ornituta dago.

2. Bilboko auzoen nortasuna

- **Erref**: BIL-013/005
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:04:16. **Bukatu**: 00:05:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Bilboko auzo gehienetan dago auzo-bizitza egiteko joera. Olatzek eta Anek gurasoengan ere ikusi izan dute hori.

3. Gaztedi Dantza Taldea; konpromisoa balore

- **Erref**: BIL-013/007
- **Iraupena**: 0:02:42. **Hasi**: 00:05:50. **Bukatu**: 00:08:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:
Gaztedi Dantza Taldeko partaide dira Olatz eta Ane. 6 urterekin hasi ziren dantzan, eta taldeari oso lotuta eta inplikatuta ibili izan dira gerora, partaide izan eta dantzatzeaz gainera, irakasle lanak egin eta ardurak hartzea egokitu baitzaie.

4. Dantza eta eguneroko martxa bateratzen

- **Erref**: BIL-013/008
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:08:32. **Bukatu**: 00:11:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:
Gaztedi Dantza Taldeak lana eskatzen die, eguneroko martxarekin nola-hala bateratzen asmatu behar dutena. Lana musutruk egiten badute ere, aberasgarri zaie oso, bizitzarako eskola moduan balio baitie.

5. Alde handiak adinean Gaztediko parataideen artean

- **Erref**: BIL-013/009
- **Iraupena**: 0:02:26. **Hasi**: 00:11:17. **Bukatu**: 00:13:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:
Alde handiak daude Gaztediko parataideen artean. Helduen taldean bertan, 15 urtetik hasi eta 30 urtetik gorakoak badaude. Garrantzitsuak dira talde kohesioa eta giro ona lortzeko antolatzen dituzten ekimen guztiak: poteoa, asteburu-pasak, irteerak...

6. Dantza taldeak denbora asko kentzen du

- **Erref**: BIL-013/010
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:13:43. **Bukatu**: 00:15:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:
Denbora da Olatz eta Aneri Gaztedik kentzen diena. Eurak horretaz kontziente dira, euren inguruak ere nozitzen baitu beren inplikazioa. Baina mugak jartzen asmatzen dute, ahal denetan, behintzat.

7. Adinak ez du barkatzen

- **Erref**: BIL-013/012
- **Iraupena**: 0:02:11. **Hasi**: 00:16:07. **Bukatu**: 00:18:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:
Gaztedi Dantzari Taldeko martxa beste edozein kirol edo jardunekin konpara daiteke. Norbera talde bateko parte den momentutik, taldeari zor zaio, hein batean. Baina badakite, bestalde, adin batetik gora ezingo diotela egungo martxari eutsi.

Transkripzioa
- Ane: Kirolak, ez? Asko badauz, ba, ez dakit, arrauna. Arraunlariek be topera ibilten diez eta... Baiña, bueno, geuze bat gustetan jatzunean esaten dozu /esatezu/ "A, ba, beitu, ba, igual konpentsatzen dost", ez? Galdu hametik edo... Eta gero, ba, disfrutetan dozulako kirolagaz, edo ikasketa zeozer asko gustetan bajatzu ez dakit e... uff... karrera bat... ez dakit, oin.. Medikuntza, adibidez. Ba igual mediku izan gure dauenak izango da berantzako “la pera”. Baiña, klaro, hor orduak sartu behar direz eta beste gauza batzuk igual aparte utzi edo lehentasunek imiñi. Ez? Esan: "A, ba momentu honetan gure dot gehixau ein hau eta hau, eta hau apur bet aparte. Ya dotorren urtean ikusiko dou".
- Olatz: Bizitza antolatzeko modu bat da azkenean, ez? Eta nik uste dut, ba, edozein... batez ere talde... bueno, talde-ekimenetan sartzen zarenean... Ze norberaren hautua baldin bada, esan nahi dut, bueno, niri igeri egitea gustatzen zait, baino konpetitu gabe; esan nahi dut, bueno, ba, entrenatzeagaitik nik erabakitzen dut bi aldiz joan, behin joan... Baina ya talde-dinamika bat, neurri batean, edo sortzen duenean, ba, bueno, hor konpromiso hori –esaten genuena– eskatzen duenean, ba, badakizu zure

bizitza eta zure agenda eta zure urtea antolatu behar duzula horren inguruan. Eta, normalean, ba, izan daitezke kasu askotan nahiko urte... urteak nahiko berdinak edo kursoak nahiko berdinak. Guk egia da ba normalean urtean baditugula ekitaldi batzuk...
- A.: Finkoak.
- O.: ... finkoak direnak eta, orduan, ba, bueno, gutxi gorabehera badakizu "Bueno, ba, maiatzean igual pixka bat okupatua egongo naiz ze juntatzen dira 3 ekitaldi" eta ez dakit zer, ba, bueno. Baina... bueno, ba horixe: bizitza antolatzeko modu bat da eta azkenean, ba, bueno, ba, neurri batean ere badakigu bizitzako etapa bat dela. Ez? Osea, gu oso gaztetatik hasi giñen baiña badakigu...
- A.: 40 urtegaz ez dogula segituko jantzan.
- O.: Hori da.
- A.: Eta asko, adibidez, nik berez lesiño bat dekot belaunean eta esaten dot: "Bueno, nik momentuz eingo dot jantzan, ya ezin dotenean, ba, bueno, aillegako da, ez? Ez naz ibiliko hor pentsatzen... Ze, azkenean, helduko da momentu bat esango dotena "Bueno, ya; ein dot jantza ya urte askoan" eta... beste gauza bat hartuko dozu, ez? Azkenean...

8. Gaztedi Dantza Taldearen sorrera

- **Erref**: BIL-013/013
- **Iraupena**: 0:02:19. **Hasi**: 00:18:18. **Bukatu**: 00:20:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Dantza
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura

Laburpena:
1951. urtean sortua da Gaztedi Dantza Taldea. Olatz taldearen historia biltzeko asmoz egindako dokumental baten sorreran parte hartu du, eta argigarri bezain harrigarriak egin zaizkie lehen belaunaldietako partaindeen testigantzak.

9. Urteurrenak, 5 urtean behin

- **Erref**: BIL-013/014
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:20:37. **Bukatu**: 00:22:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:
Olatz eta Ane Gaztedi Dantza Taldearen 65. urteurrenean pentsatzen. Euren aurreko belaunaldiek mantentzen dute lotura taldearekin, eta urteurrenetan eta ekitaldi berezietan parte hartu ohi dute.

10. Gaztetxoenengan konpromisoaren hazia ereiten

- **Erref**: BIL-013/016

- **Iraupena**: 0:00:47. **Hasi**: 00:22:52. **Bukatu**: 00:23:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:
Ez da erraza taldeko gaztetxoei konpromisoaren arra txertatzea, eta, batez ere, gaur egun; izan ere, handia baita egun gazteei egiten zaien aisialdirako eskaintza. Baina hori omen taldearen iraupena bermatzeko modu bakarra, eta hala izan da taldearen sorreratik gaur egun arte.

11. Oso mutil dantzari gutxi dago

- **Erref**: BIL-013/017
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:23:39. **Bukatu**: 00:25:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:
Mutil dantzari gutxi dago, eta eskasia, batez ere, helduen taldeetan izaten da nabarmen.

12. Gurasoak dantzari

- **Erref**: BIL-013/018
- **Iraupena**: 0:01:07. **Hasi**: 00:25:05. **Bukatu**: 00:26:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Dantza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia

Laburpena:
Gurasoak dantzariak izateak asko eragin zuen Olatz eta Anerengan. Oso gogoan dituzte oraindik ume-umetan gurasoen entseguetara joaten ziren egunak. Horrek lagundu egin zien Gaztedirako pausua ematen, eta egun, taldea uzteko pentsamendua urrunarazten die.

13. Dantzara lotzeko adin zailak

- **Erref**: BIL-013/019
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 00:26:12. **Bukatu**: 00:28:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:
Nerabezaroa adin-tarte zaila dela diote, baina bada dantza alde batera utzi eta gerora itzultzen denik, eta ez omen dira gutxi. Euskal dantza moda-modan dagoena ez izanagatik ere, ez da dantzaririk falta Euskal Herrian zehar.

14. 60 urtetik gora eta osasuntsu

- **Erref**: BIL-013/021
- **Iraupena**: 0:03:49. **Hasi**: 00:28:58. **Bukatu**: 00:32:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:
Gaztedi Dantza Taldea 60 urtetik gora osasuntsu mantentzearen motiboak zehazten ez dago erraza. Beste auzo eta herri batzuetako taldeen lana goraipatzen dute Olatzek eta Anek. Tartean, Kastaños auzoko Salbatzaile taldea, Begoña Arroyok sortua.

15. "Gaur, sekta eguna"

- **Erref**: BIL-013/023
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:33:09. **Bukatu**: 00:34:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:
Gaztedikoak erreferente kulturala dira auzoan, baina baita tabernetan ere... Talde-giro ederra dute, noizean behin antolatzen dituzten parrandak lekuko. Ingurukoek esan izan diete, brometan, beti ere, Gaztedi sekta moduko bat dela.

16. Santutxu auzoa bizi-bizirik

- **Erref**: BIL-013/024
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:34:09. **Bukatu**: 00:36:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Taberna giroa

Laburpena:
Auzoko elkarteek ekimen asko antolatzen dituzte euskara eta kultura sustatzeko, eta askotan izaten dira tabernekin lotuta.

17. Parrandan hasteko adina

- **Erref**: BIL-013/026

- **Iraupena**: 0:02:12. **Hasi**: 00:36:08. **Bukatu**: 00:38:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa

Laburpena:
Olatzek eta Anek 15-16 urte inguru zituztela egin zuten lehen parranda; aukera izanez gero, ordea, ez lukete adin hori berriz izateko denboran atzera egingo.

18. Parranda egiteko modu asko

- **Erref**: BIL-013/027
- **Iraupena**: 0:02:03. **Hasi**: 00:38:20. **Bukatu**: 00:40:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa

Laburpena:
Olatzen ustez parranda ez da egunerokotasunari ixkin egiteko bide bakarra, eta parrandarik onenak, aurrez pentsatzen ez direnak dira. Aneri gustatzen zaio asteburua ongi aprobetxatzea, tartean parranda egin behar bada ere. Dantza taldeak eman izan die halakoetarako abagunea.

19. Zer da parranda?

- **Erref**: BIL-013/028
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:40:23. **Bukatu**: 00:42:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa

Laburpena:
Parranda ulertzeko modu asko dago, eta goraino mozkortzea ez da derrigorra.

20. Gaztedin euskara nagusi

- **Erref**: BIL-013/030
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:42:25. **Bukatu**: 00:43:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Euskaldunak dira dantza taldeko gehienak, eta euskara da nagusi Gaztedi Dantza taldean

21. Euskaraz bizitzen saiatzen

- **Erref**: BIL-013/031

- **Iraupena**: 0:01:42. **Hasi**: 00:43:28. **Bukatu**: 00:45:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Olatzek eta Anek argi ikusten dute Bilbon ez dagoela normalizatuta euskararen egoera, eta eremu guztietan erabiltzearen aldekoak dira, erraza ez dela badakiten arren.

22. Erregistro informalean gazteleraz

- **Erref**: BIL-013/032
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 00:45:10. **Bukatu**: 00:46:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:
Nerabezaroan euskarazko "gazte hizkera"ren hutsunea sumatu izan dute, eta sumatzen dute gaur egunean ere.

23. Hizkuntza joerak

- **Erref**: BIL-013/033
- **Iraupena**: 0:01:49. **Hasi**: 00:46:51. **Bukatu**: 00:48:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Euren hizkuntza joerak azaltzen dituzte Olatzek eta Anek.

24. Zenbait hizkuntza-ohitura aldatzea ez da erraza

- **Erref**: BIL-013/036
- **Iraupena**: 0:02:38. **Hasi**: 00:50:38. **Bukatu**: 00:53:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Umorea egiteko eta iraintzeko garaian Anek eta Olatzek ez dute pentsatzen zein hizkuntzatan ari diren. Irteten zaien moduan doaz umore kolpe zein zirtoak, baina, gehienetan, gazteleraz. Bestalde, euskalkiak sarri izaten dira umorerako gai.

25. Ingurukoen hizkuntza ohituretan eragiten

- **Erref**: BIL-013/038
- **Iraupena**: 0:02:26. **Hasi**: 00:53:29. **Bukatu**: 00:55:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Anek eta Olatzek sumatzen dute haiek inguruan hainbat eta hainbat esamolde gazteleraz esateko joera dagoela. Ohitura horiek aldatzearen aldekoak dira, lor daitekeela sinistuta daudelako, baina pixkanaka eragin behar dela uste dute, egoerak bortxatu gabe, eta ahalik eta naturaltasun handienarekin.

26. Hizkuntza hautuak eta idazkera sare sozialetan

- **Erref**: BIL-013/040
- **Iraupena**: 0:02:37. **Hasi**: 00:56:06. **Bukatu**: 00:58:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:
Sare sozialetan euskaraz aritzeko joera dute, baina hartzailearen arabera hizkuntza aldatzen dute, batere arazorik gabe. Idazkerari dagokionean, ez dira letrak "janez" mezuak laburtu zaleak, baina ahozko hizkera hobesten dute mezu motz eta zehatzak idazteko garaian.

27. Dantza taldeko barne komunikazioa euskaraz

- **Erref**: BIL-013/042
- **Iraupena**: 0:00:52. **Hasi**: 00:58:53. **Bukatu**: 00:59:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Gaztedi dantza taldeko antolakuntza lanetan aritzen dira Olatz eta Ane, eta gainontzeko kideei informazio jakina helarazi behar dietenean, euskara lehenesteko joera dute.

28. Hizkuntzak ikasteari buruz

- **Erref**: BIL-013/044
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 01:00:15. **Bukatu**: 01:02:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera

- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:
Olatz eta Aneri ez zaie nekeza euskaldun izatea. Euskaldun berri baten larruan jarri, ordea, eta nekosoa izango dela imajinatzen dute, baina behin hizkuntza ikasterakoan neke denak desagertzen direla diote.

29. Lagun xiberutarrak

- **Erref**: BIL-013/046
- **Iraupena**: 0:02:21. **Hasi**: 01:02:33. **Bukatu**: 01:04:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:
Gaztedi dantza taldeak maskarada bat jokatu zuen 2013ko udan Xiberuko Zalgizen. Pasarte honetan, euskalki kontuengatik elkar ulertzeko izan zituzten "arazoez" mintzo dira Ane eta Olatz.

30. Xiberuan maskarada jokatu zuteneko esperientziaren balorazioa

- **Erref**: BIL-013/048
- **Iraupena**: 0:03:22. **Hasi**: 01:05:03. **Bukatu**: 01:08:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:
2013 arte Xiberutik kanpoko inongo dantza-taldek ez zuen Xiberuko lurretan maskaradarik jokatu. Gaztedikoak izan ziren lehenak, eta Olatzek eta Anek esperientziaren berri ematen dute; arduraz eta errespetuz jokatzeko beharra sentitu zutela diote, eta emaitzarekin harro daudela.

31. Xiberutarrak Bilbon nahi ditugu orain

- **Erref**: BIL-013/050
- **Iraupena**: 0:01:34. **Hasi**: 01:08:31. **Bukatu**: 01:10:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:
Xiberutarrekin egindako harremanari segida eman nahi liokete aurrerantzean, eta xiberutarrek maskarada Bilbon jokatzea litzateke egun erronka.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-20

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com